

HERNANIK kronika

2003 urtea
Iralak 26
Ostirala
Alea: 886
www.kronika.net



Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko duten Bertso Eskolako kideak (Falta dira, bertsolariak Iker Osa, Aitor Mendiluze, Agin Rezola, Aitor Usandizaga eta Josu Oiartzabal. Gai jartzailea: Gorka Tolosa. Epaileak, Mikel Iturbe eta Joxe Angel Oiartzabal).

Gaur hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta Hernaniko Bertso Eskolako 16 bertsolari izango ditu

■ Gaur Astigarragako kultur etxearen da saioa, 22:00etan ■ Hernaniko taldeak, Ibon Miner, Jon Iraola eta Iker Alustizak kantatuko dute Astigarragan eta Aitor Usandizagak Aian ■ Guztira 71 bertsolarik hartuko dute parte.

GIPUZKOAKO Bertsolari Txapelketa gaur jarriko da martxan, Astigarragako eta Aiako saioekin. Gaurtik abendura bitartean 18 saio jokatuko dira 3 fasetan eta finala abenduaren 14an jokatuko da Irungo Artaleku kirolegian. Guztira 71 bertsolarik hartuko dute parte eta hauetako 10 hernaniarrak dira eta 16 Hernaniko Bertso eskolakoak.

Ibon Miner eta Jon Iraola herniarrek gaur kantatuko dute Astigarragako kultur etxearen, 22:00etan. Iker Alustiza Bertso eskola kidea eta Ander Lizarralde, Manex Mujika eta Gorka Etxeberria izan-

go dira beste bertsolariak. Bestalde, Hernanin final laurdenetako saioa jokatuko da azaroaren 1ean.

Lau finalista

Azken Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko lau finalista izango ditugu aurtengo Gipuzkoako Txapelketan: Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Jexux Mari Irazu. Laukote hau finalaurrekoetan sartuko da txapelketan, Iñaki Zelaiarekin batera (Zelai finalista izan zen 1995eko Gipuzkoako Txapelketan). Hauek izango dira aurtengo txapela irabazteko favorito, baina, bertsolari gazte asko

ilusioz gainezka dago sorpresa emateko pronto, 25 urteko media duen txapelketa honetan.

Herri giroa piztu

Aurten martxan jarriko den txapelketak helburu bat baina gehiago ditu: bertsolari ezezagunek beren burua aditzera emateko tokia izatea, herrietako bertso eskola eta bertso zaleak martxan jarri eta giroa piztea, eta nola ez, ikuslea berotuko duen txapelketa modua egitea. Helburu hauez gain, txapelketa honen balioko du datorren Euskal Herriko Txapelketan sartzeko ere. □

HERNANIKO BERTSO ESKOLAKO BERTSOLARIK ETA ZEIN FASETAN SARTZEN DIREN TXAPELKETAN

Maialen Lujanbio	Finalaurreko, azaroak 16
Aitor Mendiluze	Finalaurreko, azaroak 16
Jexux Mari Irazu	Finalaurreko, azaroak 30
Iñaki Zelai	Finalaurreko, azaroak 23
Unai Agirre	Finalaurdenea, urriak 26
Joxe Luis Urdangarin	Lehen fasea, urriak 3
Aritz Zerain	Lehen fasea, urriak 3
Estitxu Eizagirre	Lehen fasea, urriak 10
Ibon Miner	Lehen fasea, irailak 26
Iker Osa	Lehen fasea, urriak 3
Jon Iraola	Lehen fasea, irailak 26
Iker Alustiza	Lehen fasea, irailak 26
Aitor Usandizaga	Lehen fasea, irailak 26
Josu Oiartzabal	Lehen fasea, urriak 3
Joxe Angel Aranburu	Lehen fasea, urriak 10
Agin Rezola	Lehen fasea, urriak 10

Mugarri eguna bihar Malmazartik Hernanira

BIHAR da 14garren Mugarri eguna eta Hernani, Donostia, Astigarraga eta Errenteriako mugatan ibilikoi dira haur eta helduak. Haurrek Malmazar eta Aparrain arteko bidea egingo dute eta helduek Malmazar eta Martindegia arteko. Irteera goizeko 08:00etan dute guztiak Atsegindegin eta autobusak eramango ditu Landarbaso aldera, Malmazzarra. Aurtengo edizioan 120 umek izena emana dute ikastetxeetan eta ibilia egin nahi duten helduek izena eman gabe Atsegindegira azaldu besterik ez dute. □

Albokari Topaketa asteburuan

ALBOKARI Topaketa da Hernanin datorren asteburuan. Bihar larunbata kontzertua emango du *Hala Dzipo* taldeak, 19:00etan, Sandiusterrin. Egun, haundia hala ere igandekoa izango da, egun guztian zehar izango baita alboka soinua entzuteko aukera Hernaniko kaleetan barrena. 11:00etan kalejira dago, 12:30etan alboka kontzertua dago Tilosetan eta arratsaldeko 18:30etan ere kalez kale ariko dira albokariak. Aurtzen 10 edizioa du Albokari Topaketak eta urteroko moduan Euskal Herri guztiko albokariak izango dira Hernanin. □

Andragoton gaur izatekoa zen antzerkia suspenditu egin da

GAUR *El Gran Cagaret con los 7 magníficos* antzezlana egiteko zuen Interruptus taldeak Andragoto ateneoan, baina, suspenditu egin da emanaldia. Seguruenera bi aste barru egingo dute, baina, konfirmatzeko dago oraindik. □

Peña
OKINDEGIA JANARIDENDA
Zure eguneroko
beharrei erantzuteko,
hemen gaude.
Kale Nagusia 19
Tel.: 943 55 23 98
HERNANI

**HERNANI
HIZKUNTZAK
ENGLISH**
Gure Inglesetxea
Zorionak! Aitziber (bikain), Gari, Ainara, Mikel (bikain), Edurne, Harri, Paul, Jose Luis eta Unai Cambridge FCE edo Advanced azterketa gainditzeagatik.
MATRIKULA ZABALIK
Deitu Alan / Joe
943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 653 74 10 97
20120 Hernani

Eguzki perfumería
Eguzki
zure
denda
Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

**Eguzki
perfumería**
Gure dendan,
behar dezuna
daukagu.
► Perfumería
► Opariak
► Edertz gela
► Solariuma
► Ileapaindegia

Etxerat-ek kontzentrazioa deitu du gaur eta dirua biltzeko kanpaina hasiko du sakabanaketak eragiten dituen gastuei aurre egiteko

■ Kontzentrazioa 20:00etan da plazan 'Guztioen artean Euskal presoak Euskal Herri' lemarekin ■ Diruz lagundu nahi duenak "kuotakide orriak" izango ditu betetzeko.

ETXERAT elkartea kontzentrazioa deitu du gaur, hilero azken ostiralean egin ohi duen moduan. Guztioen artean Euskal Presoak Euskal Herri lema izango du kontzentrazioak eta arratsaldeko 20:00etan egindo da Gudarien plazan. Gaurko kontzentrazioan, bestalde, *Kuotakide orriak* egongo dira, diru laguntza emateko prest dauden herritarrek bete ditzaten. Etxeratet sakabanaketa politikak suposatzen duen gastu ekonomikoaren berri eman du eta jendeari laguntza esku.

Konpromisoa

Etxerat elkartea jendearen konpromisoa eskatzen du gaur egungo egoerak suposatzen duen gastuei aurre egiteko. Senitartekoak bisitazera urrun joan beharrak suposatzen dituen gastuez gain, bulego lanak, bulegoak eta bulego gastuak, propaganda eta idazlana argitaratzea eta abar ere aipatzen ditu Etxeratet. Bestalde, Etxeratet dio instituzioetatik laguntza ekonomikoak jaso izan dituztenean "laguntza horiek kendu, jasotzeko baldintza onartezinak eskatu edo epaitegiak galerazi egin izan dituzte. "Gure etxeoak dira, baina, euren bizi baldintzen eta esku-

bideen arazo euskal gizarte osoarena da" dio Etxeratet eta "ekonomikoki itotze estrategia" honen erremedioia jendearen laguntza dela.

Hernan duen eragina

Sakabanaketak Hernaniko presoengen duen eragin ekonomikoa ere azaldu du Etxeratet prentsa ohar batean. Preso guztieei bisita bat egiteko 27.204 kilometro egin behar dira eta 2.100 euro kostatzen da. Urtean 1.414.606 kilometro egin behar dira herriko presoak bisitatzen joateko eta gas-tua 109.200 eurorotakoa da (18.169.460 pta). Adibide konkretuak ere eman ditu Etxeratet: Joxan Pagola Beltza bisitatzeko 2.468 kilometro egin behar dira aldiro eta 140 euroko gastua du bidaia; urtean 7.280 euro kostatzen da bisitak egitea (1.210.000 pta). Asier Ormazabal bisitatzeko 1558 kilometro egin behar dira eta bidaia bakoitza 120 euro kostatzen da; urtean 6.240 euro (1.040.000 pta). Eta Angel Pikabea bisitatzeko 1.400 kilometro egin behar dira aldiro eta bisita bakoitza 200 euro kostatzen da. Urtean 10.400 euro (1.730.000 pta). □

ETXERAT ELKARTEA

"Sakabanaketa politikak eragiten duen ondorio larriena ekonomikoa ez den arren, izugarritzko galera ekonomikoa eragiten ari da"

DISPERTSIOAK SORTZEN DITUEN GASTUAK

■ Legeak ematen dituen bisita arruntak betetzea 6.620.884 euro kostatzen da urtean (1.101.622.542 pta).

■ Legeak ematen dituen bisita bereziak betetzea (bis a bis-ak) 749.534, 13 euro kostatzen da urtean (124.711.986 pta).

■ Preso bakoitzari dagozkion bisitak egitea 10.500 eurotik gora kostatzen da urtean, bataz beste (1.700.000 pta).

■ Herriko preso guztiek bisitatzeko, urtean 1.414.606 km egin behar dira eta 109.200 euro kostatzen da (18.169.460 pezeta)

Gaur egunean, 700 euskal preso politiko daude eta 79 espesietan daude sakabanatuta (Ez da kontuan hartz Harta Holanda, Inglaterra, Alemania, Quebec, Argentina eta Mexikon dauden presoak bisitatzen joateak suposatzen duen gastua).

(Etxeraten txostenetik ateratako datuak)

EKINek eskualdeko manifestazioa deitu du biharko

■ Bihar irailak 27, Gudari Eguna ospatuko du EKINek eta manifestazioa 20:00etan izango da ■ Igandean Adarra mendi irtetear antolatu du: 11:00, Besabin.

EKIN erakundeak ekitaldiak antolatu ditu larunbat eta iganderako, Gudari Eguna ospatzeko. EKINek, prentsa ohar batez bidez adierazi duenez, "Euskal Herriaren aldeko borrokan hildakoak" gogoratuko ditu bihar, eta azpimarratu nahi du "herri honi dagozkion eskubideak, borrokaz, iritsi eta lortu ahal izango ditugula".

Larunbatean, EKINek lore eskaintza eta eskualdeko manifestazioa antolatu ditu. Ekitaldia, 20:00etan izango da, Gudarien plazan. Igandean, berriz, Adarra mendira irtetear antolatu du eta Etenetan omenaldia egingo da. Hitzordua 11:00etan, Besabin.

Otzauari agurrik beroena
Kronikara bidalitako komunikatuan, EKINek adierazi du aurtengo Gugari Eguna egoera latzean etorri dela eta Arkaitz Otazu zenarentzat izango da erakunde horren "agurrik beroena eta sentikorrena".

Hiru joera politiko

EKINek egora politikoari buruzko gogoeta ere egin du eta bere ustez "egungo egituratze juridiko-politikoa kinka larrian dago" eta horren lekuko jotzen ditu "eztabaida/zalantza eta alderdi politiko desberdin proposamen eraberrituak gatazka gainditzeari begira". EKINek hiru joera nagusi ikusten ditu: 1) Alderdi

Franco-Espainolistena, inmobilismo eta inposaketarena; 2) Euskal Herriaren eskubideak defenditzen dituena, independentista abertzaleena; eta 3) autonomismoa-erregionalismoa, EKINek proiekturik gabe eta noraezean ikusten duena, eta bere ustez Spainaren barruan mantentzeko paktuhan proposatzen duena.

EKINen ustez, aurrera begirako erronka da bahituta dauden eskubideak berreskuratu eta herri bezala jardutea. Eta ezker abertzalearentzat egoera zaila dela onartu arren, adierazi du helburua izan behar duela herriko indarrak bildu eta eskubideen defensan kokatzea. □

HITZ BITAN

✓ GIMNASIA ERRITMIKOA

Taldeak eta ordutegia gaur jarriko dituzte. Gimnasia Erritmiko gazteak zein taldetan egongo diren eta astero entrenatzeko zain ordutegi izango duten gaur arterako dira zerrendak, kirolegian.

✓ ARRANTZA

Txantxangorri ondo Hondarribin. Txantxangorri elkarteko Javier Pastor eta Antonio Ortega 10 eta 23garren gelditu dira Hondarribin egindako arrantza lehiaketan, irailaren 21ean. 224 parte hartzaile izan ditu txapelketak. Hernaniarrek ez dute nolanahiko maila eman beraz.

✓ IRAILA EKINTZEZ BLAI

Skate eta Monty bideoa, Biterin. Iraila Ekintzez Blai ekitaldien barruan bideoa emango dute gaur Biterin, 17:00etan. Hernaniko gazteak patinetean eta bizikletan zebiltzala egindako bideoa da.

✓ SAGAR FESTA ASTIGARRAGAN

Sagardo probaketa azalpenekin, bihar. Hirugarraren Sagarr Festa dute Astigarragan, bihar eta etzi. Biher, larunbata sagardo sagardo kata dago eta Xabier Kamiok emango ditu azalpenak. Udaletxeko pleno aretoan izango da, 19:30etan. Informazioarako 647 606255 (Nekane). Bestalde pintura lehiaketa egongo da igandean, 10:00etik 13:00etara. Sagarr Festa da gaia eta Udaletxeko plazan egongo da. 10:00etik 11:00etara botako da zigorua. Irabazlearen lana hurrengo urteko Sagarr Festako kartela izango da. □

☞ JASOTA BEZALA

"TXIN-TXIN, TXIN-TXIN, DIRUAREN HOTSA..."

"horretxek ematen dit maitea bihotzean poza" eta ez nerri bakarrik. Badirudi espaniar faxismoak ipinitako udal agintari berrientzat ere horrela dela. Hori izan da behintzat, nere ondorioa bereaien buruari ezarritako soldatuk aztertu ondoren.

Estate baterako, eta hau neretxat nahiko harrigarrria da, Hernaniko herriak aukeratu zuen azken alkatea, hau da Mertxe Etxeberriak urtero 27.500 euroko soldata gordina bazuen, gaur egun inposatutako alkatea omen denak

52.000 euro kobratuko ditu (8.600.000 pezeta) Uff! Gutxi gora behera langileek izaten duten soldaten igoera ezta?

Gainera, orain dauden agintariak hain eskuzabal eta aurrerakoak direnez, EAJ eta IUko bozeramaileek 46.000 euroko soldata soziala jasoko dute (7.600.000 pezeta).

Umm! Irakurri berri du udaleko jende honek zioela "zorrotzak" izango zirela kontratatutako enpresekin, zorrotzak ez dakit baina, azkarak bai, oso azkarak dira. Azkarregiak nere gustorako.

Mikel Arrieta

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak:	943 550093
► Udaltzaingoa:	943 333288
► DYK:	943 464622
► Autobusak:	943 556662
► Anbulatorioa:	943 006666
► Jokalaria anonimoak:	943 331103

+ FARMAZIAK

► Egunez:	Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
► Gauzez:	Tanco Urnieta. San Juan 36 ☎ 943 550942

IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko pisu bat behar dugu Hernanin. Deitu: 659 76 80 65


AMEGAR

Etxe tresnak
Altzariak

Elektrogailua
TB- Bideoak-
HI-FI-Opariak
Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 30

OINDI


taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509